

Gaia: 06/2025

**EBAZPENA, "MERLIN" PROIEKTUAN (...) ZUZENDARITZAK HERRITARREKIN
IZANDAKO ELKARRIZKETA ETA GARDENTASUN EZAGATIK AURKEZTUTAKO
SALAKETARI BURUZKOA**

I.- KONTSULTA

2025eko ekainaren 26an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gertubide plataforman (kexak eta iradokizunak kudeatzeko aplikazioa) idazki bat erregistratu zuen, Erakundearen Etika Batzordera zuzendua. Idazki horretan, "Merlin" proiektuan egon zitezkeen irregulartasunak salatu ziren. Proiektu hori (...) Zuzendaritzak eramaten du aurrera, Deba ibaiko ur geza berroneratzeko, tokiko komunitateekin eta sektore ekonomikoekin batera garatuta.

Aurkeztutako idazkian salatzen denez, ia lau urteren ondoren, (...) Zuzendaritzak egin duena izan da, Soraluzen 4 presa eraisteari dagokionez, helburu formal aldakorrak, zorroztasunik gabeko proiektuak, Soraluzeko errealitatea ez ezagutzea, justifikatu gabeko inposizioak, ustezko nortasun-ordezpena, eta hori guztia herritarrekin irekitako elkarrizketa saihestuz. Aldi berean, agerian geratu da koordinazio opakua eta gardentasunik gabea dagoela Udalarekin.

Horregatik guztiagatik, salatzen da proiektuak ez duela zilegitasunik eta ezinbesteko berme etikorik, eta Erakundearen Etika Batzordeari eskatzen zaio horri buruz duen iritzia, bai eta Gobernantza Departamentuari ere beharrezkoak diren neurriak berehala har ditzala, (...) Departamentuak Olea eta Zuloagako presak eraisteko egungo proiektua geldiaraz dezan.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurrerantzean, EZS), zeinaren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna ezaugarri gisa finkatu nahi baitira.

Sistema horren esparruan, zenbait jokabide kode onartu ziren: Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko

erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DLJK); 13/2022 Foru Dekretuaren bidez, 2022ko irailaren 13koak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoarekin elkarrekaritza duten Interes Taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea (ITJK); eta Diputatuen Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 10ko erabakiaren bidez Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoa (DAAK).

2.- Bai EZSk bai jokabide kodeek hau ezartzen dute: Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango dela berme handieneko organoa eta hura aplikatzeko gaien berri izango duena. Batzorde horren antolaketa, prozedura eta funtzionamendua maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuan arautzen dira, eta Batzordearen ardura izango da Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide arauak ez betetzeari buruz jasotako kexak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- Gai honetan, (...) Zuzendaritzak sustatutako "Merlin" europar proiektuaren zorroztasun eta legitimitate falta salatzen da, besteak beste, herritarrekiko gardentasun eta elkarbiziriketa faltagatik. Gai hori ikusita, EEB honek informazioa eskatu zion Gobernu Onaren eta Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuari (aurrerantzean, Zerbitzua) proiektu horretan aurrera eramandako partaidetza-prozesuei buruz, eta hark, uztailaren 16an, Zerbitzuan jasota zegoen informazioa bidali zuen.

2.- Salaketa-idazkia partikular batek aurkeztu du, (...) herritarren plataformako 17 pertsonako talde baten ordezkari gisa. Idazkian, bere kezka adierazten dute, Gipuzkoako Foru Aldundia, (...) Zuzendaritzaren bidez, Merlin Europako proiektua garatzen ari delako (Deba ibaian 10 presa eraistea), printzipio etikoen aurkakotzat jotzen dituzten praktiken bidez, eta jardunbide horiek ez datozelako bat erakunde horren gobernantzaren eta gobernu onaren politikan ezarritako balioekin eta jarraibideekin.

Herritarren plataforma 2022ko otsailean eratu zen, proiektuaren lehen aurkezpenean (...) Departamentuak zabalduko informazioak sortutako alarmari erantzuteko. Idatziaren arabera, Merlin proiektua herritarren parte-hartzea ardatz zuen proiektu gisa aurkeztu zen, eta ur geza jardunbide egokien bidez berroneratzea zuen helburu, inbertsio pribatua eta ekonomia berdea aprobetxatuz eta tokiko komunitateekin eta sektore ekonomikoekin batera garatuz. Hala ere, salatzen da, ia lau urteren ondoren, (...) zuzendaritzak, Soraluzen 4 presa eraisteari dagokionez, helburu formal aldakorrak, proiektu zorrotzak, Soraluzeko errealitatearen ezjakintasuna, justifikatu gabeko inposizioak eta ustezko nortasun-ordezpena biltzen dituela.

Adierazi denez, foru Aldundiaren aldetik proiektuaren arduradunek sistematikoki saihestu dute azalpen publikoak ematea, herritarrekin irekitako elkarrikereta saihestuz, eta, aldi berean, agerian geratu da Udalarekin koordinazio opakua eta gardentasunik gabea dagoela, eta horrek indartu egiten du jarduketa publiko oro gidatu behar duten publikitate-, partaidetza- eta kontu-ematearen printzipioetatik kanpo jardun dutelako pertzepzioa.

Laburbilduz, bilakaera horren ezaugarriak izan dira gero eta gardentasun falta handiagoa, jardunbide egokien pixkanakako narriadura eta edozein jarduketa publiko gidatu behar duten printzipio etikoen desbideratze argia, hori guztia aldeztu aurretik hartutako erabaki bat inposatzeko: Soraluzeko presak ezabatzea. Aurkeztutako idazkiari jarduketa horien egutegi xehatua erantsi zaio, gobernantzari eta etikari dagokienez.

Bestalde, bereziki kezagarria da Olea eta Zuloaga eraisteko proiektua izapidetzean gertatutakoa:

1. Plataformak (2025/03/23) 10 alegazio egin zizkion (...) Departamentuari Olea eta Zuloaga eraisteko proiektuari.
2. Egun batzuk geroago, hirugarren batek – ustez foru Aldundiak berak – URAn (2025/04/11) eta haren izenean erregistratu zituen foru Aldundiak proiektua baimentzeko egindako eskaerari egindako alegazio berberak, bere baimenik eta aurretiazko ezagutzarik gabe.
3. Ondoren, (...) (2025/04/16) gure alegazioen erantzunak bidali zizkion URari, eta bi hilabete geroago erantzun zieten (2025/06/21).

Jarduketa horiek, fede onaren eta administrazio-gardentasunaren oinarriko printzipioak urratzeaz gain, legez kanpoko praktika izan daitezke, alegazioak sinatu dituztenen identitatea ordezten baitute.

Haien ustez, jarduketa publikoek ordena logiko eta oinarrituari jarraitu behar diote, eta, esan bezala, lehen urratsa da uholde-arriskua zorrotz aztertzea – bereziki URAk 2027-2033 Plan Hidrologikoa berrikusten ari den testuinguruan –, bai eta Soraluzeko Udalak iragarritako Deba ibaiaren Plan Integrala egiten amaitzea ere. Lan horiek amaitu eta dagozkion erabakiak hartu ondoren soilik baloratu ahal izango da presetan esku-hartzea beharrezkoa edo komenigarria den.

Aurreko guztiaren ondorioz, formalki eskatzen diote Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza Departamentuari berehala har ditzala behar diren neurriak (...) Departamentuak Olea eta Zuloagako presak eraisteko egungo proiektua geldiaraz dezan, eta azpimarratzen dute denbora-faktorea erabakigarria dela. Hartutako erabakia benetan eraginkorra eta efizientea izan dadin, (...) Departamentuak aipatutako presak eraisteko proiektua lizitatu baino lehen hartu eta gauzatu behar da. Adierazi dutenez, behar bezalako azkartasunez jarduten ez bada, alferrikako kalte ekonomikoak eragin diezazkioke foru Aldundiari berari, bai eta herritarrek plangintza eta kudeaketa publikoko prozesuetan duten konfiantza galtzea ere.

3.- Gobernu Onaren eta Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak adierazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Soraluzeko Udalak, 2022ko apirilaren 15etik 2023ko abendura bitartean, parte hartzeko 7 saio antolatu eta egin zituztela, herritarrei irekita, Soraluzeko (eta Gipuzkoako beste udalerrri bateko) herritarrei proiektuaren edukiaren berri emateko eta herritarrekin elkarriketa-prozesu bat sustatzeko. Adierazi dutenez, agente batzuek parte hartu zuten, eta haien berri eman zuten. Agente horietako bat salaketa aurkeztu zuen herritarren plataforma bera kide bat izan zela aipatzen dute, azaroaren 21eko saioan bere hitzaldia, argudioak eta ikuspuntua aurkeztu zituela. Adierazten dute, beraz, ez dutela ebidentziarik ikusten gardentasunik, informaziorik edo elkarriketarik ezari eusteko.

4.- Salaketa-idazkia eta erantsitako artxiboak aztertu ondoren, hainbat kontu nabarmendu behar ditugu: alde batetik, eta batez ere, (1) proiektuaren legimitaterik eza salatzen da, (...) Zuzendaritzak behin eta berriz gardentasunik ez duelako eta herritarrekin elkarriketarik ez duelako; (2) plataformak aurkeztutako alegazio-idazki baten ondorioz identitatea ordezkatzeko ere salatu da, ustez foru Aldundiak haren baimenik gabe erabili baitzuen; eta (3) proiektua geldiarazteko behar diren neurriak hartzeko eskatzen zaio Gobernantza Departamentuari.



(1) Gardentasuna, herritarrekiko elkarrizketa, publizitatea, parte-hartzea edo kontu-
ematea EZSk foru-administrazioaren jardun egokia bermatzeko jarduteko modu gisa
jasotzen dituen printzipioak dira. Hala, zenbait artikulutan horiei buruz hitz egiten da,
batzuetan printzipio gidari gisa eta beste batzuetan horien ondorio gisa. Ildo horretan,
EPJKe enplegatu publikoen jarduna gidatu behar duen gardentasunari buruz hitz
egiten du:

3.1. Gardentasuna

(...)

b) Gardentasuna, publizitate aktiboaren dimentsioan, oinarritzko helburutzat izango du
herritarrei garrantzia daukan edo eskatzen den informazio oro helaraztea, indarrean
dagoen araudiaren arabera.

(...)

d) Foru langile publikoek modu eraginkorrean garatuko dute gardentasunaren kultura
erakundearen eta administrazio prozeduretan, euren jardura profesionala garatuz aintzat
hartuta izapidetzen dituzten **espedienteak informazio publikoaren eskariaren helburu
izan daitezkeela eta herritarrek aztertu ditzaketela**.

(...)

g) Jardura gardenaren gida izango da **herritarrek erakundeengan duten konfiantza
harremana hobetzea**, horiek Foru Administrazioaren jardura publikoaren kontrola
izateko aukera ematea eta modu horretan, **kontuen aitorpena bermatzea**.

(...)

Bestalde, KPJKk berariaz hitz egiten du herritarrei entzuteaz eta kontuak emateaz,
governantza onaren politikaren ardatz substantibo gisa, parte-hartzea eta konpromiso
zibikoa sustatuz kosorkuntzan oinarritutako ekintza publiko batean. Horretarako,
herritarrekin komunikazio-kanalak etengabe eta aktiboki sustatzeko eskatzen du,
elkarlaneko gardentasun-formulen bidez edo sare edo egitura instituzionalak eta
partaidetza-prozedurak sortuz.

5.7 Harreman kapitalean oinarritutako gobernua eta herritarren entzute aktiboa

(...)

d) Foru kargu publikoek Gipuzkoako **herritarren presentzia aktiboa indartuko dute,
baita horiekiko konexioa ere, baterako sorkuntza oinarritutako ekintza publikoaren
barne, herritarren partaidetza eta konpromisoa indartuz**.

e) Herritarrekin zein entitate publiko eta pribatuekin dituzten hartu-emanetan, kargu
publikoek **entzute aktiboa garatuko dute, pertsona edo entitate bakoitzak**



helarazten dizkien eskaerei arreta eman eta horiek izapidetzeko, kasuan kasu, eskaera horiek materialki onartzea ezinezkoa izatea eragotzi gabe.

(...)

g) Indarrean dauden arauak horretarako xedatzen dituzten bide eta mekanismoen bidez garatuko da herritarren partaidetza, baita lankidetzak gardentasunerako tresnen eta bestelako baliabideen bidez ere, **herritarrei protagonismoa emateko, eta herritarrek zein herritar elkarteak foru politika publikoen sustapenean, diseinuan, egikaritzean edo ebaluazioan inplikatzeko, bereziki alorreko esparrukoetan.**

5.8 Kontuak ematea

(...)

d) Kargu publikoek aldi berean eman beharko dituzte kontuak, eta **kontu emate horien bidez, hartutako erabakiak zein erabilitako baliabideak justifikatu beharko dituzte, baita sor daitezkeen ez-egite edo desbideratzeak ere. Bide telematikoz edo agerraldi bidez eman ahal izango dira kontuak. Kontu horiek Batzar Nagusien eta komunikabideen aurrean emango dira, eta bereziki saio irekietan, herritarren eta elkarte zein entitateen aurrean.**

(...)

Alderdi batzuk ez dagozkio EEB honi baloratzea, proiektuak alderdi teknikoak bete dituen edo, adierazten den bezala, ordena logiko bati jarraitu dion, baina bai, aurkeztutako dokumentazioa ikusita, lehen aipatutako printzipioak kontuan hartu diren baloratzea, ukaezina baita idazkian eskatzen den gardentasun, elkarbizketa eta kontu-ematearen legimititatea. Kontua da jakitea proiektua hauek kontuan hartu ondoren garatu den edo, aitzitik, salatzen den bezala, halakorik egin gabe eraman den aurrera.

Aurkeztutako idazkiak behin eta berriz adierazten du gardentasunik ez dagoela, ez direla kontuak ematen (azalpenak ematea bezala ulertuta) edo herritarrekin ez dela hitz egiten. Hala ere, salatzailerak berak taula bat erantsi du, eta, bertan, inplikaturako administrazioek, hau da, Soraluzeko Udalak, foru Aldundiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak urteetan zehar egindako hainbat jarduketa adierazten dira. Honaino iritsita, gogorarazi behar dugu EEB honek foru Aldundiaren jarduketa baino ezin dugula baloratu; izan ere, parte hartzen duten gainerako administrazioen jarduketak ez daude EZSk ezartzen dituen jarduketa-parametroen mende, ez baitaude haren aplikazio-eremu subjektiboaren barruan.

Jarduketetara itzulita, salaketan aurkeztutako dokumentazioan taula bat dago, proiektuan zehar 2021ean hasi zenetik 2025eko ekainera arte izandako gertakari garrantzitsuen laburpenarekin. Dokumentazio horretan 60 jarduketa inguru jasotzen



dira, batzuk (...) plataformaren ekimenez, beste batzuk (gehienak) Soraluzeko Udalaren ekimenak eta foru Aldundiaren ekimenen batzuk ere. Azken horiek dira EEB honi interesatzen zaizkionak, eta Zerbitzuak bidalitako dokumentuan adierazitako jarduketek babesten dituzte. Horrek agerian uzten du, salaketa-idazkian adierazi den ez bezala, hainbat ekitaldi eta jardunaldi izan direla, eta horietan parte hartu zuten guztiek aukera izan zutela bai inplikaturako administrazioek emandako azalpenak entzuteko, bai horien ondorioz sortutako eztabaidak azaltzeko edo horietan parte hartzeko. Beraz, ezerk ez du adierazten informaziorik egon ez denik edo herritarrei parte hartzeko eta beren jarrera azaltzeko aukerarik eman ez zaienik, alde batera utzita emaitzak agian ez direla izan Plataformak espero zituenak.

(2) Ustezko identitate-ordezteari dagokionez, esan behar dugu hainbat administrazio proiektu bat bultzatzen ari direnean elkarrekin, haien arteko interakzioa ohikoa izateaz gain, beharrezkoa dela ahalik eta modurik eraginkorrean garatzeko. Tamaina handiko proiektuetan, hala nola honetan, ohikoa da jendaurrean jartzeko faseetan partikularren, elkarten, plataformen edo beste erakunde batzuen alegazioak jasotzea. Kasu horietan, aurkeztutako alegazioak aztertzen dira, eta, haiei ahalik eta erantzun onena eta osatuena emateko, erantzunaren parte izan daitezkeen administrazio guztiei eskatzen zaie administrazio horiek duten eskumenarekin lotutako txosten sektorialak egiteko. Kasu honetan, foru Aldundiak URA-Uraren Euskal Agentziari birbidali zizkion (...) plataformak aurkeztutako alegazioak, erantzunik egokiena lortzeko, URAk zuzeneko eskumena baitu Euskadiko ibaien kudeaketan. Beraz, ez ginateke identitateak ordezteko prozesu batez ari, baizik eta alegatutako gaitan eskumena duten erakundeei informazioa eskatzeaz, zeina, esan bezala, ohikoa baita administrazioen artean.

(3) Gobernantza Departamentuari proiektua geldiarazteko neurriak har ditzala eskatzeari dagokionez, jakina, ez da EEB honi zuzendutako eskaera, eta, nolana ere, EEB honek ez luke ezer esan beharko, haren jarduera-eremutik kanpo geratuko bailitzateke.



Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak erabaki hau hartu du, aho batez, 2025ko uztailaren 27an

EBAZPENA

Bakarra.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Enplegu Publikoaren Etika eta Kudeaketa Onaren Kodean gardentasunaren printzipioaren eta Gipuzkoako foru enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodeko, harreman-gobernuaren, herritarren entzute aktiboaren eta kontu-ematearen printzipioei buruz ezarritakoa kontuan hartuta, (...) Zuzendaritzak egindako kudeaketak ez du urratzen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Integritate Instituzionalaren Sisteman ezarritakoa.

Irune Berasaluze Lazkano
Erakundearen Etika Batzordeko lehendakaria